

AMSTRAD PC 1640, BEREIZMENIK ALTUENA

Berriro ere Amstrad etxea da PC 1640 ECD eredu berria- rekin datorkiguna. Makina berri honen ezaugarriak nabarmen- enak, koloretako monitore aurreratua eta orain arte ezagutu den bereizmenik altuenetarikoa izatea dira.

Ordenadore honek EGA tarjeta grafikoa dauka eta 640x350 puntu helbideragarritako bereizmen maximoa lor dezake barruan daraman Barne Grafiko-egokitzaileri esker.

PC 1640 ECD-k aurkezten duen konfigurazio standard- a honako hau da: 16 biteko 8086 prozesadorea, 640 K-ko memoria nagusia, 5 1/4 hazbeteko disketa, 2 botoiko sagua, denbora errealeko barne-erlojua, bolumen kontrolagarriko bozgorailua, serie eta paralelozko komunikazioak eta arkatz optikorako hargunea.

Testu moduan 40 eta 80 zutabe onartzen ditu, non karak- tere bakoitza 8 x 14 puntuko matrize batez definitzen bait da EGA txartelerako eta 8 x 8 puntutako matrize batez EGArako, kasu bietan 16 kolore erabil daitezkeelarik.

Modu grafikoan bi bereizmen-mota eskaintzen ditu: bereizmen ertaina (320 x 200 puntu helbideragari eta 4 kolore) eta bereizmen altua (640 x 200 puntu eta 2 edo 16 kolore). Baina hauek gain badu beste bereizmen bat ere; bereizmen grafiko altua deritzona, 640 x 350 puntu eta 16 kolorekin lan egiteko aukera ematen duena.

Ekipoarekin batera MS-DOS 3.2 sistema eragileria eta Digital etxeko GEM ingurunea eskaitzen dira.

Hiru konfigurazio posible daude: 5D, 5 1/4 hazbeteko disket batekin, DD 5 1/4 hazbeteko bi disketekin eta HD 5 1/4 hazbeteko disket bat eta 20 M-ko disko gogor batekin.

Ekipo berri honen salmenta-prezioa 219.000 pta.tik (+BEZ) konfigurazio txikienarentzat, 360.800 pta.raino (+BEZ), konfigurazio handienarentzat, bitartekoa da; DMP 3000 inprimagailu bat barne delarik.

ORDENADORE ERAMANGARRIAK, ETORKIZUNIK BAI?


Dagoeneko, leku gehienetan erabiltzen diren ordenado- reek ez dute leku finko batean higitu gabe zer egonik. Behar izanez gero, oso gomendagarria ez bada ere, bulego-barnean lanpostu batetik bestera eramán ditzakegu problema handia- gorik gabe. Baina ordenadore hauek, mahai gaineko ordena- dore bezala ezagutzen direnak, muga bat dute; koronte elektri- koari konektatuta egon behar dute eta hauxe da hain zuzen ere ordenadore eramangarriekin gainditzen den eragozpena; hauek batera bidez funtzionatzen bait dute. Ekipo txikiak dira (3.5 kg.tik 7 kg.ra bitartekoak), likidozko, beirazko edo plasmazko pantaila dute eta gaur egun zenbait lekutan, EEBBtan adibi- dez, batetik bestera ibiltzera behartuta dagoen profesionala- rentzat behar-beharrezko erreminta dira. Eta baita etxean lanean segitu nahi dutenentzat ere, noski.

Printzipioz makina hauek mahai gaineko ordenadoreek

burutzen dituzten lan gehienak egiteko gai direla esan daiteke, beti ere memori edukiera kontutan eduki beharko delarik. Makina hauek eskutizat, txostenak, etab. idatz daitezke, eta ez hori bakarrik; baita zuzendu eta ondoren inprimatu ere, edota beste ordenadore batera bidali ere modem-a erabiliz.

Gaur egun, eta estatu-mailan behintzat, ordenadore hauek ez daude oso hedatuak; alde batetik oraindik garesti samarrak gertatzen direlako eta bestetik lana batipat, bulegoan edo etxean egiten delako, ez da oso normala bidaiatan jendea ordenadorearekin lanean ikustea. Gainera, etxean lana egin nahi izanez gero badirudi, prezioak kontutan izanda, mahai gaineko mikroordenadore bat erostea egokiagoa dela.

Dena den, denbora pixka batera produktu berri honen bezeria hazten joango dela dirudi; banka- eta kazetaritza- arloetan batez ere.



DISKO GOGOR ERAMANGARRIAK

Ordenadore eramangarrien etorkizuna zalantzan jartzen bada ere, badirudi disko gogor eramangarriek arrakasta handia izango dutela; askotan gertatzen bait gara datuak leku batetik bestera eramán behar. Informazioa nahikoa laburra de- nean, disketez molda gaitzake nola eta hala, baina mugatu behar dugun informazio-kopurua handiagoa denean, zenbait arazorekin egiten dugu topo.

Teknologia aurrera doan neurrian arazo hauei konpon- bidea aurkitzen saiatu da zenbait etxe eta azkenik Tandon izenekoa izan da atzipen-denbora lasterreko lehen disko gogor eramangarria kaleratu duena: Personal Data Pac izenekoa. Eramangarria izateaz gain barnertzen dituen irakurketa/idaz- keta-buruen blokeoari eta idargetze-sistemari esker datuen segurtasun osoa ziurtatzen du. Personal Data Pac-en unitatea kaxa gogor batez estalitako "txaxis" baten barnean doa. Beraz, edozein bidaia egiteko eta zoritzarreko erorketak jasateko prest dago.

Entxufatzea nahikoa da aurretik konfiguratutako eta hautatutako software-liburutegia erabili ahal izateko. Beraz sistema segurua, fidagarria eta guztiz eramangarri da Personal Data Pac-ek eskaitzen duena. ●